

FITXA: 210 - GIPUZKOA - Gipuzkoak dituen erronka nagusiei buruzko esplorazio-proiektuak.

Nori zuzendua: Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrian jasotako erronken barruan sartzen den proiektu esperimentalen bat sustatzen duten unibertsitateek, lanbide-heziketako zentroek, elkarteek, fundazioek, enpresa publiko eta pribatuek, udalek, mankomunitateek, garapen agentziek eta/edo interes ekonomikoko taldeek.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/03/18
Ofiziala

Sarbide-esteka:
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko martxoaren 3ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/18/c2601528.pdf>

Eragin eremuak: Tokiko Garapena eta Enplegua

Zenbatekoa: 120.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2024/03/19 **Aurkezteko azken eguna:** 2026/04/15
(12:00)

Aurrerakina: Ez da zehaztu **Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen %100ekoa izan daiteke, eta, gehienez ere, 80.000 euro emango da proiektu bakoitzeko. **Gutxieneko zenbatekoa:** 10.000,00 €

Laburpena

Esplorazio-proiektuen ezaugarria da proiektu berritzaileak direla, Gipuzkoak dituen erronkei aurre egiteko ikuspegi berriak dituztenak. Eraldatzeko ahalmen handia dute, eta erronka horien eremuan eragina izango duten emaitzak sortzea espero da. Hala ere, ez daude behar bezain helduak beren hedapenean eta esperimentazioan inpaktu potentziala lor dezaten.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Esplorazio-proiektuak nahitaez egon beharko dute urteroko deialdian 3. atalean zerrendatutako erronketako baten barruan:

— Gipuzkoa kohesionatua. Ezberdintasunaren hazkundera da Gipuzkoako lurraldearen gizarte kohesioaren ereduaren mehatxu nagusietako bat, eta, ondorioz, gai sozioekonomikoak eta demografikoak landu behar dira, hala nola erronka demografikoa, hazkuntzan laguntzea, komunitatea indartzea, eten digitala, hizkuntza berdintasuna.

— Gipuzkoa askotarikoa eta inklusiboa. Diskurtso muturrekoenak gero eta ezegonkorragoak eta handiagoak diren testuinguru batean, giza eskubideen ikuspegia bermatzea, Ongizate Estatuaren oinarri gisa, oinarritzko premisa da. Beraz, gizarte-justiziako mekanismoen bitartez, jatorri, arraza, erlijio, etnia, sexu edo funtzionalitate fisikoagatik askotariko pertsonak sartzea, ez diskriminatzea eta aitortzea kohesio eta bake soziala bermatzera bideratu behar dira, pluraltasunari balioa emanez.

— Gipuzkoarren ongizate fisiko eta emozionala. Pertsonen elementu psikologiko, emozional, sozial eta ekonomikoen arteko oreka ongizatearen eta bizi-proiektu egokiak garatzeko baldintzen oinarria da. Osasun fisiko eta mentaleko, emozionaleko, harremanetako, sozialeko eta kognitiboko alderdiak biltzen ditu, baita alderdi materialak, sozialak eta kulturalak ere. Besteak beste, Gipuzkoako gizartearen ongizate emozional eta fisikoa sustatu nahi da, ohitura edo bizimodu osasungarriak, aktiboak eta independenteak sustatuz, prebentzioaren ikuspegitik.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduketak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko irailaren 15era bitartean gauzatu beharko dira. Justifikazio-kontu partziala 2026ko azaroaren 13a baino lehen aurkeztu beharko da, eta jarduketan gauzatze osoa egiaztatzeko azken kontua, berriz, 2027ko urriaren 15a baino lehen.